



**Espediente zk. / Nº expediente:** 585/2023

**Prozedura / Procedimiento:**

2024rako ordenantza fiskalen aldaketa / Modificación de las ordenanzas fiscales para el año 2024

**ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN  
GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN  
ORDENANTZA**

**1. XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 22.2.a) artikuluan eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2021 Foru Dekretu Arauemailean aurreikusitakoarekin bat etorriz, zerga hau eskatzen du ordenantza honen arabera.

2. artikulua

Ordenantza Zigoitiko udalerri osoan ezarriko

**2. ZERGA-GAIA**

3. artikulua

Honakoek osatuko dute zerga-gaia: obra edo hirigintza lizentzia lortu beharra duen edozein eraikuntza, instalazio obra egitea, lizentzia hori lortu ala ez, edo erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztu beharra duena, baldin eta Zigoitiko Udalari badagokio aipatutako lizentzia edo kontrol jarduera ematea.

Adibide gisa, hona hemen zerga-gai den zenbait jarduera:

1. Oin berriko edozein eraikin edo instalazio eraikitzeke

2. Lehendik dagoen edozein eraikin edo instalazio handitzeko obrak.

3. Lehendik dagoen edozein eraikin eta instalaziori eragiten dioten aldatze- edo eraberritze-obrak.

4. Lehendik dagoen edozein eraikin eta instalazioren kanpoko aldea aldatzeko obrak.

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL  
IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES,  
INSTALACIONES Y OBRAS**

**1. DISPOSICIONES GENERALES**

Artículo 1.

Este ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en el artículo 22.2.a) del Decreto Foral Normativo 1/2021, del Consejo de Gobierno Foral de 29 de septiembre que aprueba el texto refundido de la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y en el Decreto Foral Normativo 5/2021, del Consejo de Gobierno Foral de 29 de septiembre que aprueba el texto refundido de la Norma Foral del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, exige este impuesto con arreglo a la presente ordenanza.

Artículo 2.

La ordenanza se aplica en todo el término municipal de Zigoitia.

**2. HECHO IMPONIBLE**

Artículo 3.

Constituye el hecho imponible de este impuesto la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija obtención de la correspondiente licencia de obras o urbanística, se haya obtenido o no dicha licencia, o para la que se exija presentación de declaración responsable o comunicación previa, siempre que la expedición de la licencia o la actividad de control corresponda al Ayuntamiento de Zigoitia.

A título enunciativo, constituyen supuestos de hecho imponible sujetos al impuesto los siguientes:

1. Las obras de construcción de edificaciones, o instalaciones de todas clases de nueva planta.

2. Las obras de ampliación de edificios o instalaciones de todas clases existentes.

3. Las de modificación o reforma que afecten a la estructura de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.

4. Las de modificación del aspecto exterior de los edificios e instalaciones de





5. Eraikinen barruko antolaketa aldatuko duten obrak, edozein ere ematen zaion erabilera.

6. Behin-behineko obrak, Lurzoruaren Legearen testu bateratuaren 58. artikulua 2. paragrafoak aipatzen dituenak.

7. Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.

8. Lur-mugimenduak, lur erauzketak, indusketak eta lubakiak, esaterako, baldin eta egintza horiek urbanizazio edo eraikuntza proiektu onartu edo baimendu batean egikaritu beharreko obra gisa zehaztuta eta programatuta ez badaude.

9. Eraikuntzen eraispena, berehalako auri egoeran daudela jotzen direnak izan ezik.

10. Aparkalekutarako, industria edo merkataritza jardueretarako, jarduera profesionaletarako eta zerbitzu publikoetarako erabiltzen diren lur azpiko instalazioak, edo lurpeari eman nahi zaion beste edozein erabilera.

11. Bide publikotik ikus daitezkeen propaganda-kartelak ezartzea.

12. Edozein obra, eraikuntza eta instalazio, ahalmen ekonomikoaren erakusgarri diren baliabide ekonomikoen inbertsioa ekarriko dutenak eta obren edo hirigintza-lizentzia lortu beharra dutenak.

13. Betearazpen edo betearazpen subsidiarioen aginduek ere sortaraziko dute zerga hau ordaindu beharra.

4. artikulua

1.- Egindako eraikuntza, obra eta instalazioei ez zaie zerga hau ezarriko horien jabetza-titulartasuna udalarena bada eta, beti ere, udala bera bada obren jabea.

### 3. SUBJEKTU PASIBOAK

5. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, bai pertsona fisikoak, eta juridikoak, bai Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren erakundeak, eta testamentu-boterea gauzatzeko edo botere osoko usufruktua gauzatzeko zain dauden oinordetzak<sup>1</sup>, baldin eta eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabe badira; berdin dio obra egiten den ondasun higiezinaren jabe diren edo ez.

todas clases existentes.

5. Las obras que modifiquen la disposición interior de los edificios, cualquiera que sea su uso.

6. Las obras que hayan de realizarse con carácter provisional a que se refiere el apartado 2 del art. 58 del texto refundido de la Ley del Suelo.

7. Las obras de instalación de servicios públicos.

8. Los movimientos de tierra, tales como desmontes, excavaciones y terraplenado, salvo que tales actos estén detallados y programados como obras a ejecutar en un proyecto de urbanización o de edificación aprobado o autorizado.

9. La demolición de las construcciones, salvo las declaradas de ruina inminente.

10. Las instalaciones subterráneas dedicadas a aparcamiento, actividades industriales, mercantiles o profesionales, servicios públicos o cualquier otro uso a que se destine el subsuelo.

11. La colocación de carteles de propaganda visibles desde la vía pública.

12. Cualesquiera obras, construcciones, o instalaciones que impliquen inversión de recursos económicos demostrativos de una capacidad económica y sujetos a licencia de obras o urbanísticas.

13. Las órdenes de ejecución o ejecución subsidiaria darán lugar así mismo a la exacción de este impuesto.

Artículo 4

1.- No estarán sujetas a este impuesto las construcciones, obras o instalaciones ejecutadas sobre inmuebles cuya titularidad dominical corresponda a este ayuntamiento, siempre que ostente la condición de dueño de la obra.

### 3. SUJETOS PASIVOS

Artículo 5

1. Son sujetos pasivos de este Impuesto, a título de contribuyente, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, así como las herencias que se hallen pendientes del ejercicio de un poder testatorio o del ejercicio de un usufructo poderoso, que sean dueños de la construcción, instalación u obra, sean o no propietarios del inmueble sobre el que se realice aquélla.





Aurreko paragrafoetan araututakoaren ondorioetarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabetzat joko da haiek egiteak dakartzan gastuak edo kostua ordaintzen duena.

#### 6. artikulua

1.- Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, haren ordeko subjektu pasibotzat joko dira horietarako baimenak eskatu dituztenak edo dagozkien erantzukizunpeko aitortenak edo aurretiazko jakinarazpenak aurkeztu dituztenak, edo eraikuntza, instalazio edo obrak egin dituztenak. Ordezkoak zergadunari eskatu ahal dio ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa.

2.- Nolanahi ere, Zigoitiko udal administrazioak pertsona edo entitate zergadunaren nortasuna eta helbidea eskatu ahal izango dizkio zergadun ordekoari.

### 4. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

#### 7. artikulua.

1.- Honakoak salbuetsiko dira zergatik:

a) Zergari lotuta egon arren, eraikuntza, obra edo instalazioaren jabeak Estatua, Autonomia Erkidegoak, Lurralde Historikoak edo Toki Erakundeak badira, ez zaie zerga ezarriko baldin eta zuzenean errepideak, trenbideak, aireportuak, obra hidraulikoak, herrietako eta bertako hondakin uretako saneamenduak eraikitzeke badira, organismo autonomoek kudeatzen badituzte ere, inbertsio berriko obrak izan ala mantentzeko izan.

b) Eraikuntza, instalazio edo obraren jabeak Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuak badira ez zaie zerga ezarriko, haren helburua zerbitzu edo erabilera publikoa denean.

c) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 4. artikuluko 1. idatz-zatiko k) letran jasotako salbuespena aplikatu behar zaie ondasunetan egindako edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea.

#### 8. artikulua

1.- Hobaria emango da obra, eraikuntza,

A los efectos previstos en el párrafo anterior tendrá la consideración de dueño de la construcción, instalación u obra quien soporte los gastos o el coste que comporte su realización.

#### Artículo 6

1.- En el supuesto de que la construcción, instalación u obra no sea realizada por el sujeto pasivo contribuyente tendrán la condición de sujetos pasivos sustitutos del mismo quienes soliciten las correspondientes licencias o presenten las correspondientes declaraciones responsables o comunicaciones previas o quienes realicen las construcciones, instalaciones u obras. La o el sustituto podrá exigir de la o del contribuyente el importe de la cuota tributaria satisfecha.

2.- En todo caso, la administración municipal de Zigoitia podrá exigir a la persona sustituta de la o del contribuyente la identidad y dirección de la persona o entidad que ostente la condición de contribuyente.

### 4. EXENCIONES Y BONIFICACIONES

#### Artículo 7

1.- Estarán exentas del impuesto:

a) La realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sean dueños el Estado, las Comunidades Autónomas, los Territorios Históricos o las Entidades Locales, que estando sujetas al mismo, vayan a ser directamente destinadas a carreteras, ferrocarriles, aeropuertos, obras hidráulicas, saneamiento de poblaciones y de sus aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por organismos autónomos, tanto si se trata de obras de inversión nueva como de conservación.

b) La realización de cualquier construcción, instalación y obra de la que sean dueños los Concejos del Territorio Histórico de Álava cuyo destino sea el servicio o uso público.

c) La realización de cualquier construcción, instalación u obra efectuada en los bienes a los que resulte de aplicación la exención contenida en la letra k) del apartado 1 del artículo 4 del Decreto Foral Normativo 2/2021, del Consejo de Gobierno Foral de 29 de septiembre de aprobación del texto refundido de la Norma Foral del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

#### Artículo 8.

1.- Estarán bonificadas la ejecución de





instalazio eta obra hauek egiteagatik:

a) ehuneko 90reko hobaria emango zaie elbarrien sarbide eta bizigarritasun baldintzak hobetzen dituzten eraikuntza, instalazio edo obrei.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren ondorioetarako, minusbaliatuztat hartuko dira legezko ezaugarri hori ehuneko 33koa edo gehiagokoa dutenak.

Hobariaren eskabidearekin batera honako agiriak aurkeztuko dituzte:

1. Arabako Foru Aldundiak edo organo eskumendunak emandako agiria, **mugikortasunari eragiten dion minusbaliotasuna** aitortzen duena. Ez da nahikoa titulu izango balorazio taldeak emandako irizpen tekniko-fakultatiboa.

b) Ondoren adierazten diren ehunekoen hobaria emango da etxebizitzarako diren ondasun higiezinetan egiten diren eraikuntza, instalazio edo obren alde, baldin eta birgaitze energetikoa badute helburu, honako mota hauetako etiketa energetikoa lortzeko:

- A klaseko eraginkortasun Energetikoaren Etiketa: ehuneko 80.
- B klaseko eraginkortasun Energetikoaren Etiketa: ehuneko 50.

Paragrafo honetan aipatzen den hobaria indarrean dagoen legeriaren arabera nahitaez inbertitu behar ez diren zenbatekoei soilik aplikatuko zaie.

c) ehuneko 50eko hobaria izango dute etxebizitza bat duten eta bizitzeko baldintzak hobetzeko obrak egiten dituzten 65 urteko gorakoek: traba arkitektonikoak kentzeko eta irisgarritasun-elementuak jartzeko behar diren obrak. Edonola ere, etxe horretan bizi direnen pertsonen urteko errentek ezingo dute honako kopuru hauek gainditu:

- Pertsona 1.....10.000 euro
- 2 pertsona.....20.000 euro
- 3 pertsona .....30.000 euro

Hobariaren eskabidearekin honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

las siguientes construcciones, instalaciones y obras:

a) Se concederá una bonificación del 90 por ciento a favor de construcciones, instalaciones u obras que favorezcan las condiciones de acceso y habitabilidad de los discapacitados.

A efectos de lo dispuesto en este apartado, se considerarán personas minusválidas quienes tengan esta condición legal en grado igual o superior al 33 por ciento.

La solicitud de bonificación deberá acompañarse de la siguiente documentación:

1. Certificado de la minusvalía **que afecte a la movilidad** emitido por la Diputación Foral de Álava u otro organismo competente no siendo título suficiente el dictamen técnico-facultativo emitido por los equipos de valoración correspondientes.

b) Se concederá una bonificación, de los porcentajes que se indican a continuación, a favor de las construcciones, instalaciones u obras que se realicen en los bienes inmuebles destinados a vivienda, cuya finalidad sea la rehabilitación energética para la obtención de una etiqueta energética de las clases siguientes:

- Etiqueta de eficiencia energética clase A: 80 por ciento.
- Etiqueta de eficiencia energética clase B: 50 por ciento.

La bonificación a la que se refiere este apartado será aplicable exclusivamente sobre las cantidades cuya inversión no sea obligatoria de acuerdo con la legislación vigente.

c) Se concederá una bonificación del 50 por ciento para las personas mayores de 65 años, propietarias de una vivienda, que realicen obras de adaptación que mejoren sus condiciones de habitabilidad: supresión de barreras arquitectónicas y las necesarias para colocación de elementos de accesibilidad, y que las rentas anuales de las personas que habiten la vivienda no superen las siguientes:

- 1 persona.....10.000 euros
- 2 personas.....20.000 euros
- 3 personas.....30.000 euros

Con la solicitud de bonificación deberá presentarse la siguiente documentación:





1. Etxe horretan bizi diren pertsonen familia-errentaren aitortpena (familiako kideek PFEZren banakako aitortpena egiten badute, zerga-oinarria eta kuota likidoa familiako kide guztien oinarrien eta kuoten batuketa izango da).

d) Ehuneko 95eko hobaria emango da birgaitze energetikoa eta irisgarritasuna barne hartzen dituzten etxebizitzarako higiezin birgaitze integrala helburu duten eraikuntza, instalazio edo obren alde. Horretarako, birgaitze energetikoaren helburua A edo B motako eraginkortasun energetikoaren etiketa lortzea izango da.

Hobaria ezarriko da soilik, indarrean dagoen legeriaren arabera, derrigorrezkoa ez den inbertsioaren kopuruetan.

e) Ehuneko 95eko hobaria emango zaie udalaren interes edo onura berezikotzat jotzen diren eraikuntza, instalazio eta obrei, adierazpen hori justifikatzen duten inguruabar sozialak, kulturalak, historiko-artistikoak edo enplegua sustatzekoak daudenean.

f) Ehuneko 50eko hobaria emango da ibilgailu elektrikoak birkargatzeko puntuak instalatzeko beharrezkoak diren eraikuntza-lanetarako, instalazioetarako eta obretarako. Hobari hau aplikatzeko, ezinbestekoa izango da instalazioak administrazio eskudunak emandako homologazioa edukitzea.

2.- Lehenengo paragrafoan jasotako hobariak subjektu pasiboak eskatu beharko ditu lizentzia-eskaera edo obren aurretiazko jakinarazpena aurkeztean, edo hilabeteko epean, egindako likidazioa jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Hobaria lortzeko eskatzen diren inguruabarrak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Aurreko paragrafoan zehaztutako epearen ondoren aurkezten diren hobari-eskaerak epez kanpokatzen joko dira.

3.- 1. atalean jasotzen diren hobariak ez dira aldi batera aplikatuko.

1. Declaración de la renta familiar de las personas que habitan en la vivienda (en el caso de que los miembros de la familia opten por la declaración individual del IRPF, la base imponible y la cuota líquida vendrán constituidas por la suma de las bases y cuotas individuales de los distintos miembros de la familia).

d) Se concederá una bonificación del 95 por ciento a favor de las construcciones, instalaciones u obras cuya finalidad sea la rehabilitación integral de inmuebles destinados a vivienda que englobe la rehabilitación energética y la accesibilidad. A estos efectos, la rehabilitación energética ha de tener como finalidad la obtención de una etiqueta de eficiencia energética de clase A o B.

La bonificación será aplicable exclusivamente sobre las cantidades cuya inversión no sea obligatoria de acuerdo con la legislación vigente.

e) Se concederá una bonificación del 95 por ciento a favor de las construcciones, instalaciones y obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento del empleo que justifiquen tal declaración.

f) Se concederá una bonificación del 50 por ciento a favor de las construcciones, instalaciones u obras necesarias para la instalación de puntos de recarga para vehículos eléctricos. La aplicación de esta bonificación estará condicionada a que las instalaciones dispongan de la correspondiente homologación por la administración competente.

2.- Las bonificaciones contempladas en el apartado primero deberán ser solicitadas por el sujeto pasivo al presentar la solicitud de licencia o comunicación previa de obras o dentro del plazo de un mes a partir del día siguiente a la fecha de notificación de la liquidación emitida.

Deberá aportar la documentación acreditativa de las circunstancias exigidas para obtener la bonificación.

Las solicitudes de bonificaciones que se presenten con posterioridad al plazo definido en párrafo anterior, se considerarán extemporáneas.

3.- Las bonificaciones contempladas en el apartado 1 no serán aplicadas de forma





9. artikulua

Alkateak ebatziko du artikulua honetan jasotzen diren salbuespenak eta hobariak eman ala ez, ordenantza honetako baldintzak betetzeari buruz udaleko zerbitzu teknikoek eta juridikoek egindako txostena aztertu ondoren.

**5. ZERGA-OINARRIA, KUOTA ETA SORTZAPENA.**

10 artikulua

1.- Zerga honen eraikuntza-lanaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da, hau da, lan horiek egiteko kostua.

2.- Zergaren oinarrian ez dira hauek sartuko: Balio erantsiaren zerga eta erregimen berezietan egon eta parekoak diren gainerako zergak, eraikuntza-lan, instalazio edo obrarekin lotutako tasa, prezio publiko eta gainerako tokiko ondare- prestazio publikoak, profesionalen ordainsariak, kontratistaren empresa- mozkinak eta lanak betearaztearen kostuan sartzen ez den beste edozein.

3.- Udalaren baimenik ez duten, edo, behar bada, erantzukizunpeko aitortpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztu ez duten eraikuntza, instalazio eta obrei dagokienez, Zigoitiko udal administrazioak zehaztuko du zerga-oinarria.

11. artikulua

Zerga-oinarriari karga-tasa aplikatuz lortuko da zerga honi dagokion kuota.

Karga-tasa ehuneko 4,3 izango da.

Ez da zergaren kitapenik burutuko ematen duen kuota 6 eurokoa edo txikiagoa baldin bada.

12. artikulua

Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 63. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 156. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontzejuek haien herrian egindako eta ekitaldian zehar behin betiko likidatu dituzten bizitegitarako hiri-lurzoruko obra handietako eraikuntza, instalazio

simultánea.

Artículo 9

Las exenciones y bonificaciones previstas en este artículo serán resueltas por la Alcaldía, previo informe de los servicios técnicos y/o jurídicos municipales sobre el cumplimiento de los requisitos exigidos en esta Ordenanza.

**5. BASE IMPONIBLE, CUOTA Y DEVENGO**

Artículo 10

1.- La base imponible del Impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra, y se entiende por tal, a estos efectos, el coste de ejecución material de aquella.

2.- No forman parte de la base imponible el impuesto del valor añadido y demás impuestos análogos propios de regímenes especiales, las tasas, precios públicos y demás prestaciones patrimoniales de carácter público local relacionadas, en su caso, con la construcción, instalación u obra, ni tampoco los honorarios profesionales, el beneficio empresarial del contratista ni cualquier otro concepto que no integre, estrictamente, el coste de ejecución material.

3.- La base imponible, en el caso de construcciones, instalaciones y obras iniciadas sin la correspondiente licencia municipal o sin haber presentado declaración responsable o comunicación previa en su caso, será la que fijen los técnicos municipales.

Artículo 11

La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen.

El tipo de gravamen será del 4,3 por ciento.

No se practicará liquidación del impuesto cuando la cuota resultante sea igual o menor a 6 euros.

Artículo 12

De acuerdo con lo establecido en el artículo 63 del Decreto Foral Normativo 1/2021, del Consejo de Gobierno Foral de 29 de septiembre de aprobación del texto refundido de la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales, y el artículo 156 del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, regulador de las Haciendas Locales, los concejos participarán del impuesto municipal de construcciones, instalaciones y obras de las





eta lanen udal-zergan parte izango dute, behin kobratuta. Zerga honen kuotatik zerga-oinarriaren ehuneko 0,8a emango zaie, behin dagokien hobariak kenduta.

#### 13. artikulua

Eraikuntza, instalazioa eta obra hasten den momentuan sortuko da zerga, dagokion obra baimena artean lortu ez bada ere edo erantzukizunpeko aitortpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztu ez bada ere.

### 6. ZERGAREN KUDEAKETA

#### 14. artikulua

Obra egiteko aurreikusi den kostuaren deklarazioa aurkeztu beharko diote subjektuek Zigoitiko Udalari, dagokion elkargoak behar bezala ikus-onetsita; horrekin batera, obra-kontratua, aurrekontu adostua edo jabeak eta obraren egileak erabili duten bestelako kontratua aurkeztu beharko da. Orduan, aurkeztu den aurrekontua kontuan hartuta, zergaren behin-behineko likidazioa egingo da.

Era berean, baimena eskatu, eman edo ukatu gabe bada ere, edo erantzukizunpeko aitortpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztu ez bada ere, eraikuntza, instalazioa edo obra hasita badago, behin behineko deklarazioa egingo da.

Proiektuak zabaldu eta/edo aldatuz gero ere, hasierako aurrekontuko kostuan egon den gehikuntza deklaratu beharko da.

#### 15. artikulua

Zerga-oinarria interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera zehaztuko da, baldin eta aipatu aurrekontua dagokion elkargoak ikus-onetsi badu. Bestela, udal-teknikariak zehaztuko dute zerga-oinarria, obraren edo gauzatzeko proiektuaren kostu balioetsiaren arabera.

#### 16. artikulua

1.- Eraikuntza, instalazioa edo obra amaitu eta hurrengo lau hilabeteetan, benetan egindako eraikuntza, instalazioa edo obraren azken kosfieren tuaren deklarazioa aurkeztu

obras nuevas mayores en suelo urbano residencial, ejecutadas en su localidad, que se hayan liquidado definitivamente durante el ejercicio y recaudado, correspondiéndoles la parte de la cuota de este impuesto resultado de aplicar a la base imponible, una vez deducidas las posibles bonificaciones, el 0,8 por ciento.

#### Artículo 13

El impuesto se devengará en el momento de iniciarse la construcción, instalación y obra, aún cuando no se haya obtenido la correspondiente licencia de obras o no se haya presentado la correspondiente declaración responsable o comunicación previa.

### 6. GESTIÓN DEL IMPUESTO

#### Artículo 14

Los sujetos vienen obligados a presentar ante este Ayuntamiento de Zigoitia, declaración del coste previsto en la ejecución de la obra, debidamente visado por el colegio correspondiente, acompañando el contrato de obra, presupuesto conformado o cualquier otra modalidad contractual utilizada entre la persona dueña y la ejecutora de la obra. A tenor de la declaración presentada se practicará una liquidación provisional del Impuesto.

Asimismo, esta declaración provisional se practicará aunque no se hubiere solicitado, concedido o denegado la licencia, o no se hubiese presentado declaración responsable o comunicación previa en su caso, si la construcción, instalación u obra hubiera sido iniciada.

Las ampliaciones y/o modificaciones de los proyectos, exigen asimismo declaración del incremento del coste sobre el inicialmente presupuestado.

#### Artículo 15

La base imponible se determinará en función del presupuesto presentado por las personas interesadas, siempre que el mismo hubiera sido visado por el colegio correspondiente. En otro caso, la base imponible será determinada por los/as técnicos/as municipales, de acuerdo con el coste estimado de la obra o del proyecto de ejecución

#### Artículo 16

1.- Dentro de los cuatro meses siguientes a la terminación de la construcción, instalación u obra, se presentará por el sujeto una declaración del coste final de las





beharko du subjektuak; horrekin batera obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztuko da, dagokion elkargo profesionalak ikus-onesia. Horiek ikusita, behin betiko likidazioa egingo da.

2.- Zigoitiko Udalari dagokio eraikuntza, instalazioa edo obraren benetako kostua zein izan den egiaztatzea eta/edo ikertzea, behin betiko likidazioa egiteko.

#### 17. artikulua

Eraikuntza, instalazioa edo obra amaitzen denetik hasita hilabeteko epean aurreko artikuluan aipatutako aginduzko deklarazioa aurkezten ez bada, zerga alorreko arau-haustetzat joko da.

#### 18. artikulua

Zergaren likidaziorako ondorio berak izango dituzte bai administrazio isiltasun positiboa aplikatuz emandako baimenek bai esanbidez emandako baimenek.

#### 19. artikulua

Zigoitiko Udalak zerga hau autolikidatzeko prozedura ezar dezake; prozedura ezartzen denez geroztik, subjektu pasiboak aginduzko obra edo hirigintza baimena eskatzearekin batera aurkeztu beharko du obrarako aurreikusi den kostuari dagokion autolikidazioa, edo bere kasuan, erantzukizunpeko aitortpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztu beharko du.

#### 20. artikulua

Lizentzia baten titularrak edo erantzukizunpeko aitortpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztu duenak, baimendutako edo jakinarazitako obra, eraikuntza edo instalazioa bertan behera uzten badu eta hori idatzizko ukoaren bitartez adierazten badu, Zigoitiko Udalak egindako behin-behineko likidazioa itzuli edo guztiz baliogabetuko du.

#### 21. artikulua

Zergaren ordainketa, borondatezko epean, likidazioaren jakinarazpen adierazia egiten den egunaren biharamunetik hilabeteko epean egin beharko da.

### XEDAPEN GEHIGARRIA

Alkatetzak edozein aldaketa sartu ahal

construcciones, instalaciones u obras efectivamente realizadas, acompañada de certificación del director facultativo de la obra visada por el colegio profesional correspondiente, que dará lugar a la liquidación definitiva.

2.- Corresponde al Ayuntamiento de Zigoitia las actuaciones de comprobación y/o investigación en su caso del coste efectivo y real de la construcción, instalación y obra a fin de practicar la liquidación definitiva.

#### Artículo 17

La no presentación de la preceptiva declaración a que se refiere el artículo anterior en el plazo de un mes a partir de la conclusión de las construcciones, instalaciones u obras, será calificada como infracción tributaria.

#### Artículo 18

A efectos de la liquidación del impuesto, las licencias otorgadas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrán el mismo efecto que el otorgamiento expreso de licencias.

#### Artículo 19

El Ayuntamiento de Zigoitia podrá establecer el procedimiento de autoliquidación del presente impuesto quedando obligado el sujeto pasivo a partir de la fecha de establecimiento de este procedimiento a presentar autoliquidación del coste previsto de las obras junto a la solicitud de la preceptiva licencia de obras u urbanística o presentación de declaración responsable o comunicación previa en su caso.

#### Artículo 20

Si el titular de una licencia, o quien hubiera presentado una declaración responsable o comunicación previa, desistiera de realizar las obras, construcciones o instalaciones autorizadas o comunicadas, mediante renuncia expresa formulada por escrito, el Ayuntamiento de Zigoitia procederá al reintegro o anulación total de la liquidación provisional practicada.

#### Artículo 21

El pago en periodo voluntario del impuesto deberá realizarse en el plazo de un mes, que computará a partir del día siguiente a la recepción de la notificación de la liquidación.

### DISPOSICIONAL ADICIONAL

La Alcaldía podrá insertar en la presente







izango du ordenantza honetan, nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketen ondorio baino ez badira eta baldintzak aldatzea edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitzea badakarte. Aldaketa horien berri berehala emango zaio osoko bilkurari, berrets ditzan.

### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau indarrean sartuko da ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

ordenanza cualquier tipo de modificación que responda exclusivamente a cambios legales que deban ser aplicados obligatoriamente y que conlleven una alteración de requisitos o adecuación automática de cuantías o porcentajes y de ellas se dará cuenta inmediatamente al pleno a efectos de su ratificación.

### **DISPOSICIÓN FINAL**

La presente ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOTHA, y seguirá vigente hasta que se acuerde su modificación o derogación.

**EGINBIDEA.-** Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketa Udalbatzak onartu zuen 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, eta ALHAOn (129. zk., 2023ko azaroaren 3koa) eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratu zen, 30 egunez jendaurrean egon zedin. Ez zen erreklamaziorik aurkeztu. Oso-osorik argitaratu da ALHAOn, 149. zenbakian, 2023ko abenduaren 27an.

**DILIGENCIA.-** Se extiende para hacer constar que la modificación de la ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras, fue aprobada por esta Corporación en Sesión celebrada el día 23 de octubre de 2023, y publicada en el BOTHA (nº 129 de fecha 3 de noviembre de 2023) y en el tablón de Anuncios del Ayuntamiento para su exposición al público durante el plazo de 30 días no habiéndose presentado reclamación alguna. Publicada íntegramente en el BOTHA nº 149 de fecha 27 de diciembre de 2023.

## **ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**

